

VITORIA-GASTEIZKO UDALEKO GIZARTE ETXEEN ETA KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIA

ATARIKOA

Gizarte etxeak hiriko auzoetan banatutako udal ekipamenduak dira; bertan kultur, kirol eta prestakuntza zerbitzuak, programak eta jarduerak nahiz izaera soziokomunitarioa dutenak (terminoaren zentzurik zabalenean) eskaintzen zaizkie herritarrei, bai eta informazioa eta gizarte arreta ere, integrazioa eta parte hartzea oinarritzat hartuz.

Gune ireki horiek elkartzeko, informatzeko, prestakuntza eta orientabideak jasotzeko eta aisialdia betetzeko aukera eskaintzen diete herritarrei, zerbitzu, programa eta jardueren erabilera diziplinartekoaren bitartez, bakarka zein taldean izan, eta elkarte, talde eta erabiltzaileek aktiboki parte hartzeko egokiera ere eskaintzen du; horrek guztiak aisialdiko ohitura osasuntsuak sortzen eta bizi kalitatea hobetzen laguntzen du.

Hauek dira gizarte etxeen helburuak:

- Udalaren gizarte politikan diharduten sailek informazio, prestakuntza, kultur, gizarte, kirol eta aisialdi arloetan garatzen dituzte zerbitzuak, programak eta jarduerak antolakuntza unitate bakarrean integratzea, horiek sustatu eta herritarren behar zein eskaerei egokitzearren.
- Udal zerbitzuak auzoetara hedatzea, herritarrek gertuago izan ditzaten; hartara komunitatearen beharrak, asmoak eta aukerak hobeto ezagutzea eta gehiago kontuan hartzea lortuko da, eta horiei azkarrago erantzun ahalko zaie.
- Zerbitzu, programa eta jardueren kalitatea ezin hobea izan dadin lortzea, herritarren asmoekin bat etor daitezen; erabiltzaileen gogobetetasuna bilatuko da, dauden baliabide guztiak arrazionalizatuz eta koordinatuz.
- Elkarrekin, banakoek eta gizataldeek parte hartzeko prozesuak sustatzea, haien eskaerak eta ekimenak ezagutu eta bideratzeko, banakoek eta taldeek hiriko gizarte, kultura eta kirol prozesuen barruan egon daitezen.

Eremu bakoitzean tekniko talde bat izango du Udalak. Talde hori arduratuko da araudi honetan jasotako helburuak lortzeko abiatzen diren jarduera guztiak koordinatzeaz; zeregin hauek ere izango ditu:

- Eremuko egoeraren diagnosi-azterlana egitea, hori oinarritzat hartuz helburu komunak adostasunez ezartzeko.
- Beharrezko bitartekoak jartzea burutzen diren jarduerak parte hartzea bultzatzen duten kalitateko irizpide berritzaile eta malguki jarrai diezaieten.
- Eremuko zentroak auzoetako gizarte, kultur eta kirol erreferentzia gisa sustatzea.
- Eskaintako zerbitzu, programa eta jardueren kalitatea zein lan-taldearen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzen etengabe laguntzea.
- Eremuko gizarte eragileen eta zentroen arteko informazio eta komunikazio bitartekaria izatea.

ATARIKO TITULUA.- ARAUDIAREN XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA.

1. artikulua.- Araudiaren xedea.

Gizarte etxeetako instalazioak eta gainerako zerbitzuak zein udal kirol instalazioak erabiltzeari dagokionez erabiltzaileek izango dituzten eskubideak, betekizunak eta baldintzak zehaztea da araudi honen xedea.

2. artikulua.- Aplikazio eremua.

Araudi hau udal jabetzako gizarte etxe eta kirol instalazioetan aplikatuko da, horien kudeaketa beste baten esku utzi bada ere, eta beste baten jabetzakoak izanik Udalak kudeatzen dituen instalazioetan orobat.

Gainerako udal ekipamenduek ere balia dezakete araudi hau, baldin eta haien berariazko araudietan hala xedatzen bada.

LEHEN TITULUA.- ERABILTZAILEAK.

3. artikulua.- Erabiltzailearen definizioa.

Araudi honi dagokionez, gizarte etxe edo kirol instalazio batean bertako instalazioak eta zerbitzuak bidezko eran erabiltzera zilegitasunez sartzeko pertsona edo talde oro joko da erabiltzailetzat.

Beren zereginak edo lanbidea direla eta instalazioetan sartzeko direnak ez dira erabiltzailetzat joko.

4. artikulua.- Erabiltzaileen eskubide orokorrak.

Gizarte etheen eta kirol instalazioen erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte:

- Zerbitzu bat jasotzeko ezarritako prezio publikoa edo tasa ordaindu badute, zerbitzu hori jasotzeko eskubidea dute, jarduera programan zehaztutako baldintzetan edo instalazioak erabiltzeko berariazko baldintzetan. Arrazoi justifikatuak direla medio kontratatutako jarduera edo zerbitzua bertan behera utzi beharko balitz, ordaindutakoa itzuliko luke Udalak.
- Gizarte etxe edo kirol instalazioko langileekin hizkuntza ofizialeko edozein erabiltzeko eskubidea dute, Vitoria-Gasteizko Udalean Euskara Erabiltzeari buruzko Ordenantzaren ildotik.
- Erabilera orokorreko guneak ezarritako ordutegietan erabiltzeko eskubidea, ezinbestean edo arrazoi justifikatuengatik erabiltzerik ez dagoenean salbu.
- Zentroan haiei buruz dituzten datuak ikusi, zuzendu eta ezeztatzeko eskubidea izango dute erabiltzaileek, Datuak Babesteko Lege Organikoak ezarritakoari jarraituz.

5. artikulua.- Erabiltzaileen eskubideen bermea.

Gizarte etxe eta kirol instalazioen erabiltzaileen eskubideak bermatze aldera, erreklamazio orriak izango dituzte eskuragarri instalazio bakoitzeko argibide eta kontrol zerbitzuetan eta herritarrei laguntzeko bulegoetan.

Erreklamazioei erantzuteko gehienezko epea 30 egun naturalekoa izango da, hura erregistroan sartzeko egunetik kontatzen hasita, ondare erreklamazioen bat tarteko denean izan ezik, horiek ondare erantzukizunaren alorrean administrazio publikoen prozedurari buruzko araudiaren arabera bideratuko baitira.

6. artikulua.- Erantzukizun zibileko aseguruia.

Vitoria-Gasteizko Udalak erantzukizun zibilerako aseguru-poliza eduki beharko du, gizarte etxe eta kirol instalazio guztietan administrazioaren ondare erantzukizunarekin lotutako gertaerei aurre egin ahal izateko.

7. artikulua.- Erabiltzaileen betekizun orokorrak.

Gizarte etheen eta kirol instalazioen erabiltzaileek betekizun hauek izango dituzte:

- Instalazio, zerbitzu eta ekipamenduak egokiro eta behar bezala zaintzea, erabiltzen dituztenean.
- Eragozpenik edo trabarik ez jartzea gainerako erabiltzaileek instalazioak bidezko eran balia ditzaten.
- Gainerako erabiltzaileei behar den begirunea edukitzea, gizalegez jokatuz elkarbizitzaren mesedetan.
- Instalazioak, materialak eta altzariak egoki erabiltzea, araudi honetan edo instalazio nahiz zerbitzu bakoitzaren barne araudian ezarritakori jarraituz, horiei matxurarik edo kalterik egin gabe, ez eta beste erabiltzaileen osasunari edo eskubideei ere.
- Komunak, duxak eta aldagelak egoki erabiltzea, beharrezko higiene neurriak zaindiz.
- Zentroetako langileei okerreko funtzionamenduak, hausturak, gabeziak eta araudi honetan xedatutakoaren kontrako gertakariak jakinaraztea.

- Ezarritako prezio publikoak edo tasak garaiz eta zerbitzuak adierazitako moduan ordaintzea.
- Udaleko Sailek eskudun den organoaren bidez nahiz zentroetako langileen bitartez ematen dituen arau eta aginduak onartu eta betetzea, beti ere haien lana erraztuz eta haien esanei behar bezala jarraituz.
- Instalazioari, zerbitzuari edo jarduerari dagokion txartelaren edo nortasun agiriaren bidez norberaren burua identifikatzea instalazioen ardura duten langileek eskatutakoan, baita eskatzen zaion guztietan dena delako instalazioa erabiltzeko erreserba-txartela erakustea ere.
- Araudi honetako zein erabili nahi den zerbitzuko gainerako arauak betetzea.

BIGARREN TITULUA.- INSTALAZIOETAN SARTZEKO ARAUAK.

8. artikulua.- Sarbide publikoa.

Gizarte etxeak eta kirol instalazioak sarbide publiko eta askeko instalazioak dira berez, aldez aurretik prezio publikoa edo tasaren bat ordaintzea eskatzen duten jarduerak nahiz instalazioak izan ezik.

Aldez aurretik ordaintzea eskatzen duten jardueren nahiz erabileren prezio publikoak edo tasak instalazioan sartzen den edo hura erreserbatzen den unean indarrean dauden udal ordenantza fiskaletan ezarritakoak izango dira.

9. artikulua.- Ordutegiak.

Gizarte etxeek eta kirol instalazioek erabiltzeko eta jendeari zabaltzeko ordutegiak ezarriko dituzte, beren ezaugarriak eta eskaintzen dituzten zerbitzuak kontuan hartuz.

Erabiltzeko ordutegia Udalak jarduerak egiteko ezartzen duena da, direla jende guztiari zuzendutakoak direla talde edo ekintza berezietara mugatutakoak.

Jendeari zabaltzeko ordutegia erabiltzeko ordutegiaren barruan sartuta egongo da; Udalak jende guztiari zuzendutako zerbitzu, programa eta jarduerak eskaintzeko zehazten duena izango da.

Instalazioa erabiltzeko ordutegiaren arabera itxiko da. Azken jarduera bukatu eta gehienez ordu erdi geroago itxiko da zentroa.

10. artikulua.- Zerbitzu eta jarduerari buruzko argibideak.

Zentro guztietan argibide eta kontrol zerbitzu bat izango dute erabiltzaileek, eta bertan bideratuko dira era guztietako argibideak, erreserbak eta izen-emateak.

Udalaren web-gunean ere eskuratu ahalko da gizarte etxeei eta kirol instalazioei buruzko informazioa.

11. artikulua.- Adingabeak sartzea.

Segurtasun neurriak direla eta, 8 urtetik beherako haurrak 18 urtetik gorako pertsona batekin sartu beharko dira gizarte etxe eta kirol instalazioetan, haren ardurapean, salbu eta ikastaro edo lantegietan parte hartzera sartzen badira edo ikastetxe, klub edo talde antolatu batekin batera, baldin eta haiek jardueraz arduratzen den langileren bat badute.

12. artikulua.- Animaliak sartzea.

Oro har debekatu egiten da animaliak gizarte etxe edo kirol instalazioetan sartzea, gidari edo segurtasun zereginak betetzen dituztenak salbu.

13. artikulua.- Baimen-txartelak.

Zerbitzu bakoitzaren ardura duten udal sailek baimen-txartelak eman ahalko dituzte beste erakunde edo entitate batzuekiko hitzarmenen barruan; bertan zehaztuko dira baimendunen eskubideak eta betekizunak.

14. artikulua.- Hedabideak sartzea.

Komunikabideak instalazioan aldez aurretik baimena eskatu beharrik gabe sartzerik izango dute bertan antolatutako ikuskizun publikoei eta kirol lehiaketei buruz informatzeko, baina beti ere baldintza hauek betez:

- Zentroaren ohiko funtzionamendua ez eragozte.
- Zentroa ireki eta ixteko ordutegiari ez eragitea.
- Grabazio orokorrak badira, banakoan intimitateari kalterik ez egitea. Bestela, filmatu edo elkarrizketatzekoak diren pertsonen berariazko baimena beharko dute.
- Pertsonen segurtasun eta intimitateari nahiz eraikinaren segurtasunari kalte larriak sortzeko moduko gertaerarik tartean ez izatea (istripuak).

Gainerako kasuetan, aldez aurretik baimena eskatu beharko dute.

HIRUGARREN TITULUA.- INSTALAZIOAK ERABILTZeko ARAUAK.

15. artikulua.- Instalazioen ohiko eta ohiz kanpoko erabilera.

Gizarte etxe eta kirol instalazioen erabilera ohikoa izan daiteke, hau da, instalazio horren erabilera nagusiaren arabera, edo ohiz kanpoko, hau da, erabilera horrekin bat ez datorrena.

Instalazioa ohiz kanpoko jarduera baterako erabiltzen bada, aplikatzekoak diren araudi honetako arauak gain jarduerari dagokion berariazko araudia aplikatu beharko da.

16. artikulua.- Tabakoa, janariak eta edariak kontsumitzeari eta ontziei buruzko arauak.

Gizarte etxe eta kirol instalazioen barruan debekatuta dago edari alkoholduak eta tabakoa kontsumitzea.

Gizarte etxe eta kirol instalazioen barruan debekatuta dago legez kanpoko substantziak kontsumitzea.

Gizarte etxe eta kirol instalazioen barruan ezin da jan, berariaz horretarako baimena ematen den jardueretan eta kafetegian izan ezik.

Saltzeko makinak produktuak makinak dauden eremuan baino ezingo dira kontsumitu, plastikozko ontzietan dagoen ura izan ezik.

Guztiz debekatuta dago instalazioetan beirazko ontziak edo tresnak sartzea, egitekoa den jarduerarekin zuzenean lotuta dauden materialak izan ezik.

17. artikulua.- Zentroko materialak erabiltzea.

Zentroan egiten diren jardueretarako material egokia eskainiko da, eta erabiltzeko berariazko arauak betez baliatuko dira horiek.

Ez materialen erabilerak, ezta jarduerak berak ere, ez dute aldaraziko zentroko ondasun higigarri zein higiezinek jarduera egiteko unean zuten egoera.

Guneetan guztiek erabiltzeko materialik izanez gero, erabiltzaileen eskura jarriko da, eta haien ardura izango da materiala biltegitik ateratzea, biltzea eta hara atzera itzultzea.

Zentroan ez dagoelako edo une horretan eskuragarri ez dagoelako bestelako material osagarriak erabili nahi izanez gero, zentroko arduradunaren baimena beharko da hura baliatzeko, eta erabiltzailea bera izango da horrek ekar litzakeen ondorioen erantzule.

18. artikulua.- Jantzi egokiak erabiltzea.

Zerbitzu eta instalazioen erabiltzaileek jarduera bakoitzerako eskatzen diren berariazko jantziak eraman beharko dituzte.

19. artikulua.- Materialak gordetzea.

Jarduerak hala eskatzen duelako erabiltzaileek instalazioan materialik utzi behar badute, armairu, kutxa edo horretarako propio jarritako beste lekuetan utzi beharko da, udal baimena bitarte.

Udalak, dena dela, ez du bere gain hartuko udal zentroetan gordetako material pribatuen zaintza eta mantentzearen erantzukizunik.

20. artikulua.- Argazki kamerak, bideoak edo irudiak zein soinuak hartzeko beste edozein tresna erabiltzea.

Erabiltzaileen intimitatea babestu eta errespetatzearen, guztiz debekatuta egongo da argazki zein bideo kamerak erabiltzea, telefono mugikorak, PDAk edo funtzio hori duten bestelako gailuak barne,

pertsonen intimitateari eraso egin dakiokkeen leku guztietan. Guztiz debekatuta dago aldagela, bainu, sauna eta antzeko aretoetan irudiak hartzea.

Espazio komunetan irudi pribatuak hartu ahalko dira, baldin eta irudietan ageri diren pertsonak ez dutela horrelakorik nahi adierazten ez badute.

Irudiak edo soinuak zentroko esparru komunetan hartzen badira eta helburua informazioa bada, araudi honetako 14. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

Gizarte etxe eta kirol instalazioetan zaintzarako jarritako bideo kamerak udaltzainek ikuskatuko dituzte eta indarreko legeriak ezarritakoari jarraituz instalatuko dira.

21. artikulua.- Udalarena ez den publizitatea jartzea edo erakustea.

Udalarena ez den publizitatea jartzeko bi baldintza izango dira: espazio nahikoa egotea eta beste erakunde publiko batzuen ez bada zentroko arduradunaren berariazko baimena izatea, ondoren zehazten diren debekuak betetzen direla kontrola dezan:

Kasu hauetan debekatuta egongo da publizitatea jartzea:

- Publizitateak edari alkoholdunak edo tabakoa kontsumitzera bultzatzen badu, mezu xenofoboak bideratzen baditu, legez kanpoko substantziak kontsumitzera bultzatzen badu edo oro har indarreko legeria haustera bultzatzen badu.
- Mezuek edo irudiek pertsonaren duintasunari eraso egiten badiote edo konstituzioan aitortutako balioak eta eskubideak urratzen badituzte, haurrak babesteari eta hizkuntzaren zein irudien erabilera sexistari dagokionez bereziki.
- Irabazteko asmoa duen publizitate komertziala bada.
- Publizitatearen euskarrian iragarkia jarri duen entitatearen datuak argi agertzen ez badira, edo iragarritako mezuek edo edukiek horren helburua argi adierazten ez badute.

22. artikulua.- Produktuen salmenta.

Debekatuta dago zuzenean edo zeharka edozein produktu saltzea helburu duen jarduera oro, gizarte edo ongintza arrazoiren bat tarteko ez bada eta Udalak berariaz baimenik eman ez badu.

Zentroetan jarritako saltzeko makinak debeku horretatik salbuetsita egongo dira, baldin eta dagokion udal baimena badute.

Arte erakusketen kasuan, ezin izango da diru transakziorik egin zentroen barruan.

23. artikulua.- Gauza galduak.

Gauza galduak dagokion zentroko Argibide eta Kontrol Zerbitzuan gordeko dira, eta "gauza baliotsu" nahiz "jantziak eta beste" gisa sailkatuko:

"Gauza baliotsuak": hamabost egunen buruan jabeak erreklamatu ezean Udaltzaingoaren bulegoetara bidaliko dira, eta une horretatik aurrera haiek izango dira gauzen erantzule legezko jabeen aurrean.

"Jantziak eta beste": hogeita hamar egunez gordeko dira instalazioan bertan eta, jabeak erreklamatu ezean, ongintza edo laguntza erakunderen bati emango zaizkio, edo materialak birziklatzeko lekuetara eramango.

24. artikulua.- Armairu zerbitzua.

Armairu zerbitzuak kirol instalazioak erabiltzen dituzten pertsonak baino ezingo dituzte baliatu, eta jarduerak irauten duen denboran baino ez. Hura amaitutakoan armairua libre eta hutsik utzi beharko da eta, edonola ere, zentroa ixteko ordua baino lehen.

Armairuetan ezingo da utzi instalazioei edo gainerako erabiltzaileei arriskuren bat ekar liezaiekeen gauzarik.

Armairuetan uzten diren gauzek ez dute Udalaren gordailu-kontratu baten bermerik, alegia, ez da Udalak ez du gauza horiek zaintzeko erantzukizuna. Beraz, Udalak ez du erantzukizunik izango erabiltzaileei armairuetatik gauza baliotsurik edo dirurik kentzen badiete.

Egunero, lanaldia amaitutakoan, zentroko langileek hustu gabeko armairuak garbitu ahal izango dituzte. Bertan aurkitzen diren materialak zein jantziak gauza galdutzat hartuko dira, araudi honetako 23. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

25. artikulua.- Larrialdietako irteerak erabiltzea.

Larrialdietako irteerak larrialdiek eragindako ebakuazioetan baino ez dira erabiliko.

26. artikulua.- Kalteak.

Erabiltzaileen batek nahita edo utzikieriaz instalazioetan kalteren bat sortzen badu, Udalak bere esku dituen lege baliabide guztiak erabiliko ditu kaltea ordain dakion. Udaletik eta haren programaziotik kanpoko pertsona edo erakunde batek (federazioak, taldeak, klubak, elkarteak, ikastetxeak, etab.) antolatutako ekitaldi edo jarduera batean gertatzen bada kaltea, haiei ere erreklamatuko zaie kaltea, antolatutako ekitaldi edo jardueraren erantzule diren aldetik.

Kalte erreklamazioen tramitazioak ez du loturarik izango araudi honetan edo aplikatzekoak diren beste batzuetan xedatutako arauak ez betetzeak eragin ditzakeen beste zigor administratibo batzuekin.

LAUGARREN TITULUA.- IKASTAROAK, LANTEGIAK ETA BESTE PRESTAKUNTZA JARDUERA BATZUK.

27. artikulua.- Jardueren ezaugarriak.

Gizarte etxeetan diharduten Udal Sailek hainbat jarduera eskainiko dute horietako bakoitzean, dagoen eskariaren arabera zein sailek interesgarri jotzen dituzten programen arabera; horien helburua ez da inola ere izango erabiltzaileek dirua irabaztea.

Jarduera bakoitzerako, onetsitako prezio publikoak edo tasak kontuan hartuz eta jardueraren eta gauzatzen den lekuaren ezaugarrien arabera, alderdi hauek zehaztuko dira: kuotak, zein pertsona edo talderentzat den, zein epe, egun eta ordutan izango den, parte hartzeko baldintzak, lekua, izena emateko epeak eta izena emateko modua.

Informazio hori behar besteko denboraz eskainiko da zentroetan; Udalaren web-gunean zein egoki jotzen diren beste bide batzuk baliatuz ere plazaratuko da, ahalik eta zabalkunde handiena izan dezan.

Udalak ez die lekua bermatuko jardueretan parte hartzeko eskatzen duten herritar guztiei. Horregatik, eskaera dela eta hori egitea komeni den jardueretan, ahal den neurrian lekuak lortzeko aukera berdintasuna bermatzen duten sistemak ezarri ahalko dira.

Edozein ikastaro edo lantegi gauzatzeko, gutxieneko lagun kopuru bat bildu beharko da hura hasi baino hiru egun lehenago. Halaber, eskolen kalitatea bermatzeko, taldeko gehienezko ikasle kopurua finkatuko da urtero.

Ikastaro eta lantegiek irauten duten denboran etenaldiak (jaiak, zubiak edo oporraldiak) egin ahalko dira. Sasoi bakoitzaren hasieran jakinaraziko da zein diren, eta ez dute dirua itzultzeko eskubiderik emango.

28. artikulua.- Izen-ematea formalizatzea.

Izen ematea ez da behin betikotzat hartuko dagokiona ordaindu eta deialdian eskatzen diren agiriak aurkeztu arte. Horretarako epea izena emateko orrian bertan adieraziko da, udal ordenantza fiskaletan indarrean dauden arauen ildotik.

Salneurri murrizta edo berezia duten erabiltzaileek hori frogatzen duen agiria edo txartel eguneratua aurkeztu beharko dute izena ematerakoan, deskontua egingo bazaie.

Izen ematea pertsonala da, eta ezin izango zaio beste pertsona bati aldatu. Hori egiten duenari jardueran baja emango zaio.

BOSGARREN TITULUA.- ESPAZIOAK ERRESERBATU ETA ALOKATZEA.

29. artikulua.- Erreserbatu daitezkeen espazioak.

Gizarte etxe eta kirol instalazioetan espazio bat erreserbatu eta alokatzea hauxe da: erabiltzaileak eraikineko leku jakin bat eskatzea xede jakin baterako, denboraz eta udal ordenantza fiskalek xedatutakoari jarraituz. Ordenantza horietan zehaztuko da zein espazio erreserbatu eta alokatu daitezkeen; beti ere hutsik badaude eta egin nahi den jarduerarako baldintzak betetzen badituzte erabili ahalko dira.

Instalazioak erabiltzeko baimena Vitoria-Gasteizko Udalak antolatutako edo baimendutako ekintzen menpe emango da. Horien ondorioz aurretik emandako baimenak gerora ukatu edo orduz aldatu behar baldin badira ere, ez da erreklamatzeko eskubiderik izango. Hala ere, ahal dela 48 ordu lehenago emango da horren berri.

30. artikulua.- Espazioak erreserbatu eta alokatzeko eskaerak egiteko baldintzak.

Araudi honetako atarikoan adierazitako espirituarekin bat datorren jardueraren bat gauzatu nahi duen pertsona edo talde orok egin dezake espazio bat erreserbatu eta alokatzeko eskaera.

Behin erreserba onartuta, emandako datuetan gertatzen diren aldaketa guztien berri eman beharko zaio idatziz Udalari. Erreserba egin duen pertsonak edo erakundeak beste bati utzi ahalko dio horren erabilera, baldin eta hark erreserba egin zen uneko baldintza berak betetzen baditu, prezioari, espazioaren berezko baldintzei eta gauzatzekoa den jardueraren ezaugarriei dagokienez.

Erreserbatutako espazioa erabiltzen den bitartean hura eskatu duen talde, elkarte, klub edo erakundearen arduradun bat egon beharko du bertan.

Egin nahi den jarduera edo erabili nahi den espazioa zein den kontuan izanik, eta eskabidea adingabeek egiten badute, legezko tutoreen baimena eska diezaieke Udalak. Halaber, pertsona nagusi bat bertan egotea eskatu ahal izango da, taldeaz ardura dadin.

Tasak ez ditu barne hartzen muntatze lanak eta bestelako aparteko prestakuntza lanak. Erreserba egiten dutenek beren bitarteko tekniko propioak (langileak eta materiala) eduki beharko dituzte jarduerak bideratzeko, besterik zehaztu ezean. Osagai jakin batzuk erabili, maneiatu edo muntatu behar direnean Udalak hori zein enpresak edo pertsonak egin behar duten zehaztu ahalko du; dena dela, lan horiek nahiz behar diren materialen garraioa eskatzaileak ordaindu beharko ditu.

Zenbait erreserbatan Udalak baldintza bereziak ezarri ahalko ditu, araudi honetan xedatutakoa bete dadin; halaber, eskumena duten organoen bitartez, espazioak araudi honetan zehaztutakoaz bestelako baldintzetan erabiltzeko baimen berezia eman dezake.

Zentroak berak jarduera bertan behera uzten badu, edo instalazioen egoerak behar bezala erabiltzea galarazten duenean, alokairuaren dirua itzuliko du Udalak. Kasu horretan, erreserba beste egun batera eta ezaugarri berak dituen beste espazio batera aldatzerik izango da. Eguraldiak eragiten dien instalazioetan, erabiltzaileek lehenengo 15 minutuetan eskatzen badute baino ez da dirua itzuliko edo erreserba aldatuko. Espazio hori dagoen zentroko Argibide eta Kontrol Zerbitzuan tramitatuko da itzulketa, zazpi eguneko epean gehienez. Itzulketa tramitzeko erreserbaren frogagiria aurkeztu beharko da.

31. artikulua.- Eska daitezkeen egunak.

Aukera hori ematen duten espazioak erreserbatu eta alokatzeko eskaera gizarte etxe eta kirol instalazioetako edozein bulegotan egin daiteke, edo horretarako eskaintzen diren bestelako bitartekoak baliatuz. Aukera hauek daude:

Denboraldiko erreserbak. Denboraldian zehar garatzen diren jarduerak antolatzeko bide ematen duten espazioetarako. Dagozkion deialdi publikoak egingo dira horretarako, eta horietan zehaztuko dira bete beharreko baldintzak.

Zuzeneko erreserbak. Zuzenean erabil daitezkeen espazioetarako, baldin eta kasu bakoitzean ezartzen diren arauak onartzen badira, esku hartze berezirik (espazioa aldatzea, materiala osatzea, langileak...) behar ez badute edo merkataritza xedeetarako (enpresa garapena, sarrera kobratzea, marketina...) erabiltzen ez bada. Gizarte etxe eta kirol instalazioetako kontrol bulegoetan egiten da zuzenean, ezarritako prezio publikoak edo tasak ordainduz. Horrelako erreserbak gehienez 8 egun lehenago egin ahalko dira.

Instalazio mota jakin bat erabiltzeko eskaera handia bada (dela zentro bakarrean dela guztietan), alde zuzeneko zozketak egitea erabaki ahalko da.

Aldez aurretiko erreserbak. Formula hori erabiltzeko aukera ematen duten espazioetan eta aurrekoen ezaugarriarik edo aukerarik ez duten espazioetan egin daitezke.

Kasu guztietan, instalazioak erabiltzeko ordu kopurua mugatu ahal izango da.

Berriazko arauak ezarriko dira instalazio bakoitzerako erreserba egiteko prozesua zehazteko.

32. artikulua.- Leku-erreserba bertan behera uztea.

Udalak bertan behera utzi ahal izango du baimena, baldin eta instalazioa gaizki erabiltzen bada edota benetan gauzatzen diren ekintzak baimena emateko argudiatutakoen aurkakoak badira.

Halaber, gertakariren batek eraginda, instalazioak erabiltzeak jendearentzako nolanhiko arriskurik balekar, instalazioak erabat zein partzialki ixterik izango luke Udalak, bai erabiltzaileentzat, baita jende guztiarentzat ere.

33. artikulua.- Erakundeentzako aretoak.

Zentro jakin batzuetan erakundeei bakarka edo partekatuz aretoak (bulegoak edo biltegiak, esaterako) erabiltzeko aukera eman diezaieke Udalak. Areto horiek denbora epe mugatu baterako esleituko dira, hitzarmen bidez eta alde zuzenetik deialdi publikoa eginda.

SEIGARREN TITULUA.- ZIGORTZEKO ERREGIMENA.

34. artikulua.- Betekizunak ez betetzea.

Araudi honetan bildutako arauak ez betetzea arau-haustetzat joko da, eta, hortaz, zigorra ezarri ahal izango da. Ardura duen Udal Sailak zigortzeko eskumena duen organoari jakinaraziko dio gertatutakoa, bai eta eremuko koordinatzaileari ere; azken horrek aurrekari berri emango du eta gizarte arloko neurriak bultzatuz.

35. artikulua.- Arau-hauste oso larriak.

Jokabide hauek joko dira arau-hauste oso larritzat:

- a) Gizarte etxeak eta kirol instalazioak zein bertan emandako zerbitzuren bat erabiltzeko eskubidea duten beste pertsona batzuei erabiltzea eragozteak.
- b) Gizarte etxearen edo kirol instalazioaren ohiko funtzionamendua eragozteak edo horretarako trabak jartzea.
- c) Eraikina edo bertako instalazio, ekipamendu, azpiegitura edo osagaiak hondatu edo horiei kalteak eragitea, baldin eta 300,00 euro edo gehiago balio badute.
- d) Gizarte etxea edo kirol instalazioa erabiltzen ari diren pertsonen nahiz bertako langileei fisikoki eraso egitea.
- e) Bi arau-hauste larri edo gehiago metatzea.

36. artikulua.- Arau-hauste larriak.

Jokabide hauek joko dira arau-hauste larritzat:

- a) Gizarte etxe eta kirol instalazioetako zerbitzu eta espazioetan elkarbizitza nahastea.
- b) Gizarte etxe eta udal kirol instalazioen nahiz haiek ematen dituzten zerbitzuen funtzionamendua nahastea, zerbitzu horien berariazko arauak ez betetzea eta araudi honetan jasotakoak ez betetzea.
- c) Gizarte etxe eta kirol instalazioetako zerbitzu eta espazioak egoki ez erabiltzea eta baimendutako jardueraz bestelakoak egitea.
- d) Zerbitzuetara ezarritako prezio publikoa edo tasa ordaindu gabe sartzea.
- e) Gizarte etxe eta kirol instalazioetako instalazio, ekipamendu, azpiegitura edo osagaien kalteak eragitea, baldin eta 300,00 eurotik beherakoak badira.
- f) Gizarte etxea edo kirol instalazioa erabiltzen ari diren pertsonak nahiz bertako langileak iraintzea.
- g) Bi arau-hauste arin edo gehiago metatzea.
- h) Zerbitzuetarako txartel bereziak manipulatu eta faltsutzea.
- i) Norberak eragindako kalteen berri ez ematea.

37. artikulua.- Arau-hauste arinak.

Jokabide hauek joko dira arau-hauste arintzat:

- a) Jarduera edo zerbitzuen arduradunen aginduei jaramon ez egitea.
- b) Ebakuaziorako ateak sartzeko edo irteteko erabiltzea larrialdirik ez dagoenean.
- c) Zalaparta sortzea edo jarduerak eteten dituen beste edozein ekintza arin.

38. artikulua.- Zuhurtziazko neurriak.

Zuhurtziazko neurri gisa, arau-hauste larritzat edo oso larritzat jo daitezkeen jokaerak dituzten erabiltzaileak zentrotik egotzi ahalko dira, segidako hamar egunez gehienez; zentroko arduradunari horren berri emango zaio.

Eragindakoei entzun eta gero, arduradunak zuhurtziazko neurria aldatzeko proposa dezake, dela arintzeko dela gogortzeko, egoeraren larritasuna kontuan izanik; Udalak beharrezko legezko ekintzak bideratzeko eskubidea izango du.

Udal Sailek abonamenduak edo txartelak denbora batez kendu ahalko dizkiete arau-hauste larriak edo oso larriak egin dituzten pertsonari.

39. artikulua.- Zigorrak.

Arau-hauste oso larrien kasuan 1.500,01 eta 3.000 euro bitarteko isunak jarriko dira, eta erabiltzaile, abonatu edo bazkide izateko eskubidea behin betiko galduko da.

Arau-hauste larrien kasuan 750,01 eta 1.500 euro bitarteko isunak jarriko dira, eta erabiltzaile, abonatu edo bazkide izateko eskubidea behin-behineko galduko da.

Arau-hauste arinen kasuan 750 euro arteko isunak jarriko dira, eta ohartarazpena egingo.

40. artikulua.- Zigorren mailakatzea.

Ezarri beharreko zigorra mailakatze alderdi hauek izango dira kontuan:

- Arau-haustea behin baino gehiagotan egin den.
- Arau-hausleak nahita egin duen.
- Gertakariak gizartean zein eragin duten.
- Kalteen larritasuna eta nolakotasuna.

41. artikulua.- Zigorren prozedura.

Zigorra ezartzeko prozedura honako hau izango da:

- 1.- Gizarte etxearen edo kirol instalazioaren ardura duen funtzionarioak dagokion dosierra abiaraziko du, Saileko zuzendariari txosten bat idatziz; bertan zigor daitezkeen jokaera, inguruabarrak, hartutako zuhurtasuneko neurriak eta zigor proposamena zehaztuko ditu.
- 2.- Saileko zuzendariak zigor-proposamena idatziko du eta ustez arau-haustea egin zuen pertsonari idatziz jakinaraziko dio, hark alegazioak aurkez ditzan; horretarako 15 egun naturaleko epea izango du.
- 3.- Epea igarotakoan, arau-haustea gertatu zen eraikina zein arlori atxikita dagoen, arlo horretako zinegotzi ordezkariak izango du zigorra ezartzeko eskumena.

42. artikulua.- Kalteak konpontzea.

Zigorra ezartzeaz gain, arau-hausleari berak eraldatutako egoera lehengoan uzteko eska dakiok, bai eta sortutako kalte-galerak ordaintzeko ere.

Udal jabetzako ondareei kalterik eginez gero, udal zerbitzu teknikoek konponketaren zenbatekoa zehaztuko dute, eta arau-hausleari edo haren ordezkariari jakinaraziko dio, ezartzen den epean ordain dezan.

43. artikulua.- Erantzuleak.

Egile materialak izango dira arau-hausteen zuzeneko erantzuleak, salbu eta adingabeak badira edo legezko egotzezintasun kausaren batean sartuta badaude; horrelakoetan legezko zaintza duten erantzun dute haien ordezkariak.

Arau-haustea zenbait pertsonak batera egin badute, guztiek solidarioki erantzun dute.

Kalteen erantzule solidario izango dira, halaber, beste batzuk egin ditzaketen administrazioko arau-hausteei aurre hartzeko legezko betekizuna duten pertsona fisiko edo juridikoek.

44. artikulua.- Adingabeek egindako arau-hausteak

Adingabeek egindako arau-hausteen kasuan, zentroko arduraduna gurasoekin (edo tutoreekin) harremanetan jartzen saiatuko da, prebentziozko erantzunak eta familia barruko baliabideak sustatze aldera. Halaber, adingabeen fiskaltza jakinaren gainean jarriko da.

45. artikulua.- Hezkuntza neurriak.

Auzien ezaugarriak halakorik eskatzen badu, zigortzeko neurriak landu eta ezartzearekin batera, hezkuntza ekimenak abiaraziko dira, arau-hausteei zuzendutako prebentzio programen bitartez.

46. artikulua.- Itundutako amaiera.

Gizalegearen aurkako jokabide baten ondorioz eragindako kalteak ahal den neurrian konpontzearen, eta dagokion zigorra ezartzeko ebazpena eman aurretik, zigorraren orde, edo Udalarik zor zaion ordainaren zenbatekoaren orde, komunitatearentzako lanak edo egitekoak ezartzeko eska dezake arau-hausteari, arau-hausteari larritasunarekin bat datozen eta haren heinekoak diren egitekoak, hain zuzen.

Horrelako eskaerarik eginez gero eten egingo da dosierra ebazteko epea.

Udal administrazioak auziperatuaren eskaera onesten badu, dosier zigortzaileari itundutako amaiera emango zaio; kasu honetan zehazten diren lanak egitea ez da zigortzat joko, eta ez du inolako lan-loturarik sortuko Udalarekin.

47. artikulua.- Txartelak behin-behineko inkautatzea.

Pertsona batek zerbitzu baten berariazko txartela aurkezten duenean zentroko langileek uste badute arrazoiren bat dela medio pertsona horrek abonatu, bazkide edo inskribatu izaera galdu duela, edo aurkeztutako txartela behar den bezalakoa ez bada, une horretan sartzen utziko zaio, baina txartela entregatu beharko du eta hura zentroan geratuko da sarbidea eragozten duen arrazoia ebatzi arte.

ZAZPIGARREN TITULUA. AZKEN XEDAPENAK

48. artikulua.- Arau osagarriak.

Zerbitzu bakoitzak, ardua duen udal sailaren bitartez, araudi hau osatzeko behar diren arauak landuko ditu, hari dagozkion berariazko alderdiak jasotzeko.

49. artikulua.- Ebazpenak.

Araudi orokor honetan, zerbitzuen arau osagarrietan edo gizarte etxeetan zein kirol instalazioetan eragina duten administrazio xedapen orokorretan jasota ez dauden kasuak instalazioaren ardua duen pertsonak (edozein eskalatan) ebatziko ditu lehenengo, eta ondoren Udaleko Lehendakaritza Saileko Zuzendaritzara igorriko, organo eskudunak kasuan kasuko erabakia har dezan.

50. artikulua.- Indarrean jartzea.

Arabako Lurralde Historikoaren aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean araudi hau.